



## **HERRIALDE KATALANETAKO EGOERA SOZIOLINGUISTIKOAREN BALANTZEA: BALANTZEEI BURUZKO DISKURTSOAK ETA DISKURTSOEN BALANTZA**

**Ernest Querol Puig**

*Universitat Oberta de Catalunya*

Helbide elektronikoa: equerolp@uoc.edu

Rien de plus fragile que la faculté humaine d'admettre la réalité, d'accepter sans réserves l'impérieuse prérogative du réel  
Clément Rosset

Urteurrenak beti dira balantzeak egiteko aukera onak. Eta BAT aldizkariaren 20. urteurrenak egokiera ezin hobea ematen du ekimen hori posible egin duten guztiak Herrialde Katalanetatik zoriontzeko. Eta, egia esateko, nolabaiteko inbidia diogu BAT aldizkariari, gurean ez baitago gaur egun zuena bezala hiru hilean behin argitaratzen den aldizkaririk<sup>1</sup>.

XXI. mendeko azken hamarkadaren amaiera ere aukera ona da aztertzeko katalanaren egoera soziolinguistikoak zer bilakaera izan duen, alde batetik, eta beste batetik, horren inguruko diskurtsoak nola aldatu diren.

### **1. DISKURTSOEN BALANTZA. DISKURTSOEN ELKARGUNEA: ARDURAGABETASUNETIK BIGARREN MAILAKO HAUSNARKETARA<sup>2</sup>**

Bigarren mailako hausnarketak aukera ematen digu azterketa soziolinguistikoaren garrantziaz jabetzeko; izan ere, gizarte-errealitatea eraikitzeko osagai aktiboak dira azterketa soziolinguistikoak. Horrenbestez,

soziolinguistikak aztertzen duen objektuan bere argia proiektatzen duenean, objektua mugitu, eta edukia aldatzen du. Hortxe dago katalanaren egoerari buruzko balantzeen garrantzia. Eta hortxe dute jatorria orotariko diskurtsoen gurutzaketek. Eta hori gutxi balitz, ez da inoiz zehazten zer adierazle erabili behar diren egoera neurtzeko, ez eta zer helburu lortu nahi den ere. Adierazleei dagokienez, argi dago, gure aburuz, esparru soziolinguistikoetako irabazien eta galeren balantzea egin behar dela. Horretarako, aurreko erreferentziak baliagarriak dira. Helburua ez da hain objektiboa, ordea, eta hori zeharo lotuta dago diskurtsoekin.

Hortaz, egoera soziolinguistikoaren balantzeen inguruko diskurtsoen bidegurutzea askatu behar dugu, horren gainean sortzen diren eztabaiden eta sasi-eztabaiden garrantzitasuna ulertzeko. Alde batetik, gaingiroki, esan dezakegu bi diskurtso daudela katalanismoari buruz: “erresistentzialista” eta modernizazioarena. Lehian daude oraindik ere bi diskurtso horiek, lehena agortuta baitago itxuraz; izan ere, teoria-mailakoa da adostasuna, eta ez enpirikoa. Aldi berean, gutxiengoaren eskubideetan oinarritutako diskurtso-estrategia bat ari da garatzen, diskurtso kratolatrikoen kontra egiten. Hala ere, diskurtso hori zentzu batean zein bestean aplikatu daiteke<sup>3</sup>. Beste alde batetik, diskurtso gehienak bi motatakoak dira: akatsgabeak eta zorrotzak. Luís de la Cortek eta Amalio Blancok (2005) adierazten dutenaren arabera, bigarren motako diskurtsoak politikaren esparrurik errealistan dago, eta errazagoa da gizarte-sektore handiek hura onartzea eta beren gain hartzea. Diskurtso-mota horrek “errealismo gordina” adierazten du, eta horretan, gehiegikeriak funtzionalak dira beti. Diskurtso akatsgabea, berriz, asmo onen eta aniztasunaren gorespenaren esparru arauemailean dago. Arloko profesionalak eman beharko luketen “normatibismo txukuna” da.

Aracilek lau diskurtso-mota bereizi zituen katalanaren gutxitzearen historian. Baldarki eta labur-labur: beharrarena (espainolista da, berpiztu egin da azken urteetan, eta egun, indarrean dago oso), borondate onarena (erregionalista da), ezintasunarena (katalana desagertuko dela onartzen du) eta, azkenik, erantzukizunarena (katalanaren sustapen eraginkorra egiten du). Gure iritziz, gaur egun, lau diskurtso horiek aurretik aipatutako lauekin (erresistentzialista, modernizazioarena, gutxiengoaren eskubideena eta kratolatrikoa) nahasten dira, eta haiek guztiak, gainera diskurtso akatsgabeekin eta zorrotzekin ere nahasten dira askotan. Nahaste-borraste hori gorabehera, gure ikuspuntutik aurkeztuko ditugu datuak, ahal bezain objektiboki.

## 2. HERRIALDE KATALANETAKO DATUAK

2003. urtea garrantzitsua izan zen, lehen aldiz izan baikenituen eskura katalanez hitz egiten den lurralde guztietako datu soziolinguistikoak. Azterketa hori kontsultatzeko, bibliografiara jo daiteke: Querol (2007).

---

*Gaingiroki, esan dezakegu bi diskurtso daudela katalanismoari buruz: “erresistentzialista” eta modernizazioarena.*

*Beste alde batetik, diskurtso gehienak bi motatakoak dira: akatsgabeak eta zorrotzak. Luís de la Cortek eta Amalio Blancok (2005) adierazten dutenaren arabera, bigarren motako diskurtsoak politikaren esparrurik errealistan dago, eta errazagoa da gizarte-sektore handiek hura onartzea eta beren gain hartzea. Diskurtso-mota horrek.*

---

*Aracilek lau diskurtso-  
mota bereizi zituen  
katalanaren gutxitzearen  
historian. Beharrarena  
(espainolista da, berpiztu  
egin da azken urteetan,  
eta egun, indarrean dago  
oso), borondate onarena  
(erregionalista da),  
ezintasunarena (katalana  
desagertuko dela onartzen  
du) eta, azkenik,  
erantzukizunarena  
(katalanaren sustapen  
eraginkorra egiten du).*

Institut de Sociolingüística Catalanatik, ikerketa guztiak zuzentzeaz gain, bibliografian aipatzen den liburua koordinatu nuen. Gainera, epigrafe hau idazteko erabiliko ditugun ondorioak idatzi nituen; izan ere, zazpi urte eta gero, ez da datu gehiagorik eman (ezta Hizkuntza Politikako Idazkaritza Esquerra Republicana de Catalunyaen arduraren denean ere), Kataluniakoak besterik ez: Inkesta demografikoa (2007) eta Biztanleriaren Hizkuntza Erabileren Inkesta (2008).

Beraz, lehenengo eta behin, lurraldeen arteko aniztasuna azalduko dugu, bai eta gaitasunetan, erabileretan eta adierazpenetan eragina duten faktoreak, eta bilakaera-aukerak. Eta azpimarratuko dugu hizkuntza tradizionala katalana duten lurraldeei buruzko azterketa bateratua egitea oso zaila dela; alde batetik, testuinguru sozialak, politikoak eta ekonomikoak askotarikoak direlako (bai egungoak bai historikoak); eta beste batetik, historian zehar eragina izan duten faktore soziodemografikoak eta soziolinguistikoak ere askotarikoak izan direlako. Gure hausnarketa teorikoetan (Querol, 1999) eta enpirikoetan oinarrituko gara. Haien esparrua gizarte-adierazpenen teoria da, eta oinarritzko aldagaitzat erreferentzia-taldea eta harremanen gizarte-sarea.

## **2.1 Talde-erreferentzia bat**

Gure ustez, erreferentzia-taldea<sup>4</sup> ezinbestekoa da hiztunen portaera aztertzeko. Hortaz, uste dugu katalanez hitz egiten duten herrialdeak ere sailkatzeko balio digula. Horrenbestez, kanpo-erreferentziako kasurik argienak Alguer eta Ipar Katalunia dira, haietan baitago aurreratuen katalana ordezkatzeko prozesua (kontuan hartuta 1. taulako adierazleak); izan ere, estatuetako hizkuntza ofizialak intrusio-estadioan daude<sup>5</sup>, eta katalana erabiltzea eragozten dute. Ondoren, askoz egoera lasaiagoan, Valentziar Herrialdea dago. Han, lekurik jendeztatuenetan, gehiengodun talde baten erreferentzia dago. Duela mende batzuk, talde hori kanpokoa zen, baina, gaur egun, barruko gehiengodun bihurtu da. Hain jendeztatuta ez dauden lekuetan, berriz, katalan hiztunen taldea ere erreferentziazkoa da. Balear Uharteak are urrunago daude lehen bi herrialdeetatik, datuei dagokienez. Valentziar Herrialdearen antzeko ezaugarriak dituzte, baina hobeto eutsi diote auto-erreferentziari. Alabaina, askoz egoera konplexuagoa dago Valentziar Herrialdean baino; izan ere, Balearretan egoitza-immigrante asko bizi dira. Andorran, ordea, lanarekin lotutako immigrazioaren fenomenoak da erabakigarria. Han, atzerritarrentzat, gaztelania da erreferentzia-taldea, nahiz eta katalana oinarritzkoa izan oraindik ere bertako katalan hiztunentzat. Horri esker, gure testuinguruko egoera soziolinguistikorik onenetako bat dute Andorran. Hala ere, Kataluniak du egoera soziolinguistikorik onena, katalana baita erreferentzia-taldea, batik bat. Azkenik, Zerrendako egoera nahasia da oso, ezaugarri geografiko eta politiko bereziak baititu. Dena den, gure

hizkuntza-esparruan aldaketa sozioekonomiko gutxi samar gertatu denez, katalanaren erabilerarik jasoenei eutsi ahal izan diegu. 1 taulan, gainetik erakusten dugu zein diren alderdi nagusiak, nahiz eta oso gutxi ñabartuta<sup>6</sup>.

1. taula. Hizkuntza-gaitasunak, katalanaren erabilerak eta katalanaren adierazpenak (laburpena). Ehunekoak

	Hizkuntza-gaitasunak				Katalanaren erabilerak					Katalanaren adierazpenak		
	Ulermena	Mintzarena	Irakurmena	Idazmena	Etxean <sup>7</sup>	Etiket kanpo <sup>8</sup>	TB	Irratia	Prentsa	Unitatea	+ iraganeko erabilera <sup>9</sup>	+ etorkizuneko erabilera
Andorra	96	78,9	89,7	61,1	38,1	48	39	55	64	85,2	41,4	49,2
Katalunia	97,4	84,7	90,5	62,3	45,3	52	50	56	37	85,7	45,9	40,3
Zerrenda	98,5	88,8	72,9	30,3	70,2	64	33	32	10	84	15,8	14,6
Balear Uharteak	93,1	74,6	79,6	46,9	43,5	44	28	21	12	78,6	37,1	34,3
Valentziar Herrialdea	81,6	58,4	51,1	27,3	36,5	---	---	---	---	---	---	44,7
Alguer	90,1	61,3	46,5	13,6	7,9	15	0,2	0,1	0,2	77,7	13,5	24,1
Ipar Katalunia	65,3	37,1	31,4	10,6	0,8	6	0,4	0,4	0,1	68,5	19,9	23,9

Erreferentzia-taldeak ezagutzen, erabileren eta adierazpenen norabidea erakusten digu. Eta erreferentzia horrek, politikan aldarrikapenak egiten dituen heinean, norabide batera edo bestera orientatzen ditu adierazle soziolinguistikoak, eta azkartu egiten ditu. Horrenbestez, aurkeztu dugunaren antzeko mailaketa bat ezarri ahal izango genuke, lurralde bakoitzeko aldarrikapen politiko nazionalaren maila kontuan hartuta, eta emaitzak berdintsuak izango lirateke. Izan ere, UOCen inkesta aztertzean (Querol i Strubell, 2009), egiaztatu dugu segmentazio-azterketa batean autokategorizazio nazionala izango litzatekeela katalanaren erabilerarekin zerikusirik handiena duen bigarren aldagaia. "Zu zer sentitzen zara?" galderaren erantzuna da: "Katalana soilik", Katalana espainola baino gehiago"...

## 2.2 Gaitasunetan, erabileretan eta adierazpenetan eragina duten faktoreak

Epigrafe honetan, bi aldagai hartuko ditugu aintzat labur-labur: aldagai soziodemografikoak eta hizkuntzaren soziologiarekin zerikusi handiagoa duten aldagaia. Lehen aldagaiei dagokienez, aldagai bateko eta aldagai biko azterketei esker lortutako emaitzetan oinarrituta, nabarmendu behar dugu jaioterria dela aztertu ditugun alderdi soziolinguistikoetan eraginik handiena duen faktorea. Badira eragina duten beste bi alda-

---

*Erreferentzia-taldeak ezagutzen, erabileren eta adierazpenen norabidea erakusten digu. Eta erreferentzia horrek, politikan aldarrikapenak egiten dituen heinean, norabide batera edo bestera orientatzen ditu adierazle soziolinguistikoak, eta azkartu egiten ditu.*

gai, baina ez dute eragin berbera lurralde eta esparru guztietan: adina eta heziketa-maila dira. Adinari dagokionez, ohartu gara lurralde guztietan zenbait erregularutasun daudela: gaur egun, gazteenek erabiltzen dute gutxien katalana etxean eta telebista ikusteko garaian; gainera, adierazpenei dagokionez, proportziorik handienez uste dute egun katalana gutxiago erabiltzen dela iragan hurbilean baino, eta etorkizunean gutxiago erabiliko dela gaur egun baino.

Aipatu dugun hirugarren aldagai soziodemografikoa heziketa-maila da. Aldagai horrek erlazio zuzenki proportzionala du katalanezko hedabideen kontsumoarekin: zenbat eta heziketa-maila handiagoa izan, orduan eta gehiago kontsumitzen dira katalanezko hedabideak. Bi salbuespen daude: lehena, Andorran, prentsari dagokionez, heziketa-mailarik txikieneko pertsonen irakurtzen baitute gehien katalanez; eta bigarrena, Balear Uharteetan, ikasketarik ez duten pertsonen kontsumitzen baitute katalanezko irratia gehienbat. Bada beste erregularutasun bat adierazpenei dagokionez, salbuespen bakarrarekin (Ipar Katalunian): zenbat eta handiagoa izan ikasketeta-maila, orduan eta handiagoa da adostasun-maila katalanaren batasunarekiko. Katalana etxean eta etxetik kanpo erabiltzeari dagokionez, hau da araua: zenbat eta handiagoa izan prestakuntza-maila, orduan eta gutxiago erabiltzen da katalana. Andorra eta Katalunia dira salbuespenak.

Gurasoekin erabiltzen den hizkuntza da katalanaren erabilerekin loturarik handiena duen faktorea, ezarri ditugun antolamenduko lehen bost lurraldeetan: gurasoekin katalanez bereziki mintzatu diren guztiek katalana erabiltzen dute seme-alabekin hitz egiteko. Gainera, hizkuntzaren aldetik mistoak diren bikoteen seme-alabek katalanez hitz egiten diete beren seme-alabei batez ere. Arlo horretako beste faktore batzuek ere oso lotura handia dute erabilerekin; izan ere, aldagai horiek oso erlazionatuta daude gurasoekin erabilitako hizkuntzarekin, hala nola hasierako hizkuntza eta, maila txikiago batean, erantzuleek euren hizkuntzat hartzen duten hizkuntza.

### **3. KATALUNIA: KATALANERA ERAKARTZEN DUEN EREDUA**

Herrialde Katalanen ikuspegi orokorra azaldu dugunean, ikusi dugu Katalunia aitzindaria dela. Epigrafe honetan, saiatuko gara asmatzen zer faktoreri esker dago Katalunia egoera horretan, nahiz eta atzerritar immigranteen kopurua oso handia izan. Bi inkesta alderatuko ditugu, hamar bat urteko aldearekin egindakoak: DGPLrena, Kataluniako 15 urtez behar-rakoen katalanaren ahozko erabilerari buruzko hizkuntza-inkesta (1997), eta UOCen 2008ko inkesta (Querol eta Strubell, 2009 a).<sup>10</sup>

Bi inkesten arteko denboran gertatutako aldaketa demografikoak izugarrikoak izan dira, tamainari eta norabideei dagokionez. Nolabait, hizkuntzez ari garela, 1960ko hamarkadako migrazioen antzekoak dira;

alabaina, gaur egun, hainbat hizkuntzako pertsonak etortzen dira, eta askoz denboraldi txikiagoan.

### **3.1 Hizkuntza-gaitasunak: atzerriko eta Espainiako immigranteen arteko aldeak txikitu egiten dira**

Hizkuntza-gaitasunei buruzko datuak azaltzeko, 2007ko inkesta demografikoa erabiliko dugu (Querol, 2009 b eta 2010 a). Ikusi dugu aldeak txikitzeko joera dagoela, bai demografikoak bai hizkuntzaren ingurukoak, Estatuko gainerako lekuetatik datozen pertsonen eta atzerriko immigranteen artean. Alde batetik, bi kolektiboen biztanle-ehunekoak berdintsuak dira: %20,4 eta %16,7, hurrenez hurren, (alegia, 3,7 punturen arteko aldea). Beste batetik, katalanaren ezagutza-mailen arteko aldea ere txikitzen ari da; izan ere, idazmenean, 2,4 portzentajezko puntuko aldea dago. Gainerako gaitasunetan, berriz, aldeak handiagoak dira oraindik ere: 16 eta 18 puntu bitartekoak.

Aldeak txikitzeko joera hori azpimarratzekoa da, eskuarki oso handia baita bi kolektiboek Katalunian bizitzen daramatzaten denboren arteko aldea. Estatuko gainerako lekuetatik iritsitako pertsona gehienek hogeita hamar urtetik gora daramate Katalunian. Atzeritik etorri direnek, berriz, zazpi urte inguru daramate, gutxi gorabehera; izan ere, mende-aldaketaren inguruan, asko handitu zen immigrazio-maila.

Hizkuntza-gaitasunei dagokienez, bi gaitasunek gora egin dute: mintzamenak (1,1 puntu) eta idazmenak (6,5 puntu). Beste bi gaitasunek, berriz, behera egiten dute: ulermenak eta irakurmenak (0,7 puntu eta 1,3 puntu, hurrenez hurren). Hala ere, gaitasun-koefizientea bi hamarren handiagoa da 2001ean baino (0,73tik 0,75era).

Azken hamarkada honetan, izugarri handitu da katalana (lau gaitasunetako edozeinetan) ikasi duten pertsonen kopurua, termino absolutuetan.

Halaber, sexuen arabera ehunekoak ere berdintzen ari dira; izan ere, emakumeak gizonen emaitzetara ari dira hurbiltzen, hizkuntza-gaitasunei dagokienez.

### **3.2 Erabilerak**

Ezin bestela izan, osaera demografiko berri horren ondorioz, birdoitzeak gertatuko dira banatze-lehiaketa dagoen arlo guztietan. Hain zuzen ere, erabilerez ari gara, eta birdoitze horiek, katalanari dagokionez, behetik gertatuko dira hasieran.

Erabilerei dagokienez, egiaztatutzat har dezakegun erabilera baka-rean —alegia, inkesta egiteko erabiltzen den hizkuntza—, katalanaren erabilera 0,60 puntu handiagoa da 1997an baino. Gainerako erabilerek behera egiten dute: familia-esparruan, 3-4,9 puntu txikiagoa da; eta etxetik kanpo, 1,4 eta 8,9 puntu bitarteko beherakada gertatu da. Korrelatiboki, zeroko baturako egoera horretan, gaztelaniak eta beste hizkuntzek

---

*Bi inkesta alderatuko ditugu, hamar bat urteko aldearekin egindakoak: DGPLrena, Kataluniako 15 urtez beherakoan katalanaren ahozko erabilerari buruzko hizkuntza-inkesta (1997), eta UOCen 2008ko inkesta (Querol eta Strubell, 2009 a).*

**Hamarkada honetan, izugarri handitu da katalana (lau gaitasunetako edozeinetan) ikasi duten pertsonen kopurua, termino absolutuetan. Erabilerei dagokienez, egiaztatutzat har dezakegun erabilera bakarrean –alegia, inkesta egiteko erabiltzen den hizkuntza–, katalanaren erabilera 0,60 puntu handiagoa da 1997an baino. Gainerako erabilerek behera egiten dute.**

hartu dituzte portzentajezko puntu horiek; izan ere, hizkuntza horiek erabilera handitu egin da, batez ere gaztelaniarena ez direnena.

Lehen hizkuntza katalana duten pertsonen portzentajea 4,7 puntu txikitu da; hots, biztanleriaren %36,6 dira pertsona horiek. Aitzitik, ohiko hizkuntza katalana duten pertsonen ehunekoa gutxiago txikitu da (-3,4 puntu), eta %45,7koa da. Alabaina, azpimarratu behar dugu katalanaren erabileren ehunekoa 9,1 puntu handitu dela, elkarriketatuek ikasitako hasierako hizkuntzarekiko. Eta elkarriketatuek katalana zer ehunekotan erabiltzen duten galdetzean, ikus dezakegu katalana askoz gehiago erabili dela (10,7 puntu). Hain zuzen, %47,3k erabiltzen zuen katalana, 1,5 puntu gutxiago 1997an baino.


Dena den, ehunekoak kopuru absolutuetan adieraziz gero, ikusiko dugu katalanaren erabilera esparru guztietan handitzen dela.

### 3.3 Katalanaren aurrerapenak

#### 3.3.1 Hasierako hizkuntzatik ohiko hizkuntzara: 8,7 puntuko hazkunde nabarmena

Hasierako hizkuntzatik ohiko hizkuntzarako bilakaerari dagokionez, nabarmen handitzeko joera du katalanak, bai 1997an bai 2008an. Azken inkestako datuek adierazten dutenaren arabera, katalanaren erabilera 8,7 puntu handitu da ohiko hizkuntza gisa, hasierako hizkuntzarekiko. 1. grafikoa oso adierazgarria da; hazkunde hori adierazten du, bai eta hurrengo epigrafean belaunaldi arteko transmisioari buruz esaten duguna ere.

1. grafikoa. Hasierako hizkuntza, ohiko hizkuntza eta seme-alabekin erabilitako hizkuntza. Ehunekoak, 2008



### *3.3.2 Hasierako hizkuntzatik seme-alabei transmititutako hizkuntzara: portzentajezko 14 punturen gehikuntza ikusgarria*

1. grafikoak argi eta garbi erakusten du 14,5 puntuko delata hasierako hizkuntzaren eta seme-alabei transmititzen zaien hizkuntzaren artean. Horrek esan nahi du 1997ko inkestaren emaitzek adierazitako joerak bere horretan jarraitu zuela 2008an; izan ere, 2008ko datua 0,8 puntu handiagoa da 1997koa baino. Gainera, oso interesgarria da gurasoen banaketa, aukeratutako hizkuntzaren arabera. Hasierako hizkuntza katalana zuten gehien-gehienek katalana baino ez zuten erabiltzen (portzentajea %71tik gorakoa da beti). Gainerakoek katalana erabiltzen zuten gehiago gaztelania baino (%17 baino gehiago beti), eta antzera erabiltzen zituzten bi hizkuntzak (%10 baino gehiago beti). Aitzitik, gaztelania lehenesten zuten gurasoen ehunekoa %3,5etik beherakoa zen beti, eta gero eta txikiagoa da. Hala ere, jatorriz katalan hiztunak zirenen artean gero eta gehiagok aukeratzen zuten ofizialez bestelako hizkuntza bat seme-alabei transmititzeko; hain zuzen, seme-alabei beste hizkuntza batean hitz egiten zietenen ehunekoa %10 ingurukoa zen.

### *3.3.3 Katalana erabiltzea laguntzen duten aldagaiak*

Katalana erabiltzea gehien eragiten duten aldagaiak hauek dira, bai 1997an bai 2008an: gurasoen jaiotza eta elkarrizketatuen jaiotza. Garrantzi-ordena hori azpimarratzekoa da oso; izan ere, gertaera ezaguna islatzen du, behar bezala kontuan hartzen ez dena: hizkuntza-aldaketak eraginkortasunez gertatuko badira, belaunaldi bateko baino gehiagoko hiztunak behar dira. 40 urtez beherakoen %20k soilik transmititzen zien katalana seme-alabei (aukera horretan), bi gurasoen hasierako hizkuntza gaztelania zenean. Alegia, hirugarren belaunaldian, ondorengoen %14ren hasierako hizkuntza ez zen aitona-amonen eta gurasoen hasierako hizkuntza.

Katalanaren erabileran erabakigarriak ziren beste bi aldagaiak habitata eta adina ziren. Adinarena aurreko paragrafoan aipatu dugu; izan ere, azaldu dugu berrogei urte inguru zituztenek handitzen zutela katalanaren transmisioa. Eta bizilekuaren aldagaia, dakigunez, oso lotuta dago immigrante gehienak hartu izan dituzten lekuekin.

Katalanaren erabiltzaileen profil soziodemografikoan, aldaketa txiki bat gertatu zen: aztertutako azken hamarkadan, katalanaren erabilerak ez zeuden hain lotuta elkarrizketatuen eta haien gurasoen jaioterriarekin. Datu hori funtsezkoa izan daiteke katalanaren erabilera hedada dadin; izan ere, familia edonongoa dela ere, errazagoa da katalana eskura izatea.

Ohiko hizkuntzari zein katalanaren erabilera-portzentajeari buruzko galderari dagokionez, hauek izan dira eraginik handiena duten faktoreak:

— adina: 65 urte edo gutxiago zituztenek zuten portzentajerik handienak. Aitzitik, 25 eta 39 urte bitartekoek zuten portzentajerik txikiena.

---

***Hasierako hizkuntzatik ohiko hizkuntzarako bilakaerari dagokionez, nabarmen handitzeko joera du katalanak.***

***Hasierako hizkuntzatik seme-alabei transmititutako hizkuntzara: portzentajezko 14 punturen gehikuntza ikusgarria.***

***Gaztelania lehenesten zuten gurasoen ehunekoa %3,5etik beherakoa zen beti, eta gero eta txikiagoa da.***



---

***Katalana erabiltzea  
gehien eragiten duten  
aldagaiak hauek dira, bai  
1997an bai 2008an:  
gurasoen jaiotza eta  
elkarrizketatuen jaiotza.***

***Hizkuntza-aldaketak  
eraginkortasunez  
gertatuko badira,  
belaunaldi bateko baino  
gehiagoko hiztunak behar  
dira.***

***Katalanaren erabileran  
erabakigarriak ziren beste  
bi aldagaiak habitata eta  
adina ziren.***

— gizarte-maila: faktore honetan, oso mailaketa garbia zegoen. Zenbat eta handiagoa izan gizarte-maila, orduan eta handiagoa zen ohiko hizkuntza katalana zuten pertsonen portzentajea. Gauza bera gertatzen zen etxeko eta etxetik kanpoko erabilerari begiratzen badiogu.

— lurralde-banaketa: Lleida, Tarragona eta Gironako probintzietan, batez bestekoa baino handiagoa zen erabileraren portzentajea. Metropoli-barrutian (Bartzelonan izan ezik), ordea, batez beste baino gutxiago erabiltzen zen katalana.

— ikasketa-maila: esaterako, etxeko erabilerari dagokienez, unibertsitate-prestakuntza zuten pertsonen %40 inguruk katalana soilik erabiltzen zuten. Seme-alabei katalanez soilik hitz egiten zieten portzentajea %53koa zen. Lehen mailako ikasketak zituzten pertsonak, berriz, gutxiago erabiltzen zuten katalana bikotekidearekin eta seme-alabekin hitz egiteko (%32,7 eta %40,6, hurrenez hurren). Etxetik kanpoko erabileran antzeko eragina zuen faktore horrek.

Sexuak ez zuen eraginik esanguratsurik aztertutako esparruetan, etxetik kanpoko erabileretan izan ezik. Esparru horretan, emakume gehiagok erabiltzen zuten katalana soilik (%29,5) gizonek baino; izan ere, etxetik kanpo katalana soilik erabiltzen duten gizonen portzentajea ia 5 puntu txikiagoa zen (%24,6).

Hizkuntza-jokabideen eta jokabide politikoaren arteko korrelatuei buruzko azterketak beste aldagai bat eman digu: katalanaren erabilera gehien argitzen duen bigarrena. Hain da garrantzitsua, non 9. eta 3.4. ataletan azalduko dugun.

### *3.3.4 Hiztun berriak: hasierako hizkuntzatzat ez dutenen erabilera*

Orain arte, kualitatiboa izan da gizarte-harremanetan katalana erabiltzen hasten diren pertsonen buruzko azterketa. Zoritxarrez, gainera, ikerketak oso maiztasun txikiarekin egin dira. Ildo horretan, 2008ko inkestak beritasun bat zuen: gai horri buruzko galdera bat sartu zen. Lortu ditugun emaitzek jakitera ematen dutenez, hasierako hizkuntza katalana ez zuten pertsonak 21,3 urterekin hasi ziren hura erabiltzen, batez beste. Haietatik, %42,3 17 urte egin ondoren hasi zen erabiltzen; %26,5 10 eta 17 urte bitarteko adin-tartean; eta %22,7, azkenik, 17 urte bete aurretik. 15 eta 24 urte bitartekoek erantzun zuten 8,8 urterekin hasi zirela katalana erabiltzen, eta 65 urte eta gehiago dutenek, berriz, 31,6 urterekin hasi zirela.

## **3.4 Hizkuntza-jokabideen eta autokategorizazio nazionalaren arteko korrelatuak**

Autokategorizazio nazionalak mailaketa paraleloa du bai ohiko hizkuntzaren portzentajeekiko bai etxeko eta etxetik kanpoko erabilerarekiko.

Horrez gain, hiztun berriak katalana erabiltzen hasten diren adinarekin lotutako mailaketa dago, aurreko atalean azaldu dugunez.

Ohiko hizkuntza katalana dutela adierazten dutenen portzentajeak hauek dira, autokategorizazio nazionalaren arabera: katalan soilik sentitzen direnak (%80), espainol baino gehiago sentitzen direla diotenak (%68,9), espainol bezain katalanak direla diotenak (%27), eta neurri handiagoan edo txikiagoan espainolak sentitzen direnak (%6,7). Beste aukera batzuk hautatu dutenen artean (europarra, atzerritarra, beren herrialdekoak eta beste batzuk), %13,1ek adierazten du katalana dela bere ohiko hizkuntza.

Katalana familiarren arteko harremanetan erabiltzeari dagokionez — hau da, familiako kideekin katalana soilik erabiltzeari dagokionez—, autokategorizazio nazionalak mailaketa berbera ezartzen du. Bi taldek dute portzentaje handiagoa batez bestekoa baino: lehenengo eta behin, katalan soilik sentitzen direnek (%71,4-82,3), eta bigarrenik, espainol baino gehiago katalan sentitzen direnek (%57,9-71,7). Bi talde daude batez bestekoaren azpitik: bi identitateak maila berean onartzen dituztenak (%22,1-29,4) eta katalan baino gehiago espainol edo katalan soilik sentitzen direnak (%6,1-9,8). Mailaketa berbera gertatzen da etxetik kanpoko erabileretan.

### 3.5. Politikaren arloko lau gaiak

Lau gai hauei buruzko iritzia eskatu diegu elkarrizketatuei: kirol-selektzioei, eskumen fiskalei, garraioaren kudeaketari eta katalana Europan ofiziala izateari buruzkoak. Elkarrizketatu askok proposatutako lau gai horien alde egin zuen, erabateko sostengua edo sostengu handia emanaz. Adierazi beharra dago aldeko jarrera hori identitate-gaietatik harago doala; izan ere, beren burua katalantzat soilik sailkatzen ez duten pertsona askok bere egiten dute Katalunia independente batean ia automatikoki onartuko lirakeen zenbait helburu. Politologoei edo, zuzenean, politikariei dagokie horren ondorioak ateratzea.

### 3.6 Kataluniaren independentziari buruzko erreferenduma

Kontuan hartuta inkestak kontu handiz interpretatu behar direla, esan behar dugu ziur gaudela hainbat iruzkingile zur eta lur geratu direla Kataluniaren independentzia erabakitzeko erreferendumari buruzko galderaren emaitzak ikusita: baiezeko botoen eta ezezkoen arteko aldea 14 puntukoa izango litzateke, eta beraz, baiezekoak irabaziko luke. Garaipen biribila, itxuraz, baina onartu behar da haren arrazoa galdera idazteko moduan datzala, neurri batean: ohiko...zuk zer bozkatuko zenuke? galdetu beharrean, ...zuk zer egingo zenuke? galdetu zen. Gure iritziz, galdera horrek isuria eragin zuen elkarrizketatuen erantzunean. Katalanak hamarkada batean izandako bilakaeraren emaitza nagusiak aztertu ondoren, diskurtso sasiprofetikoak zer-nolako etorkizuna duen aztertuko dugu.

---

*Hasierako hizkuntza katalana ez zuten pertsonak 21,3 urterekin hasi ziren hura erabiltzen, batez beste.*

*Autokategorizazio nazionalak mailaketa paraleloa du bai ohiko hizkuntzaren portzentajeekiko bai etxeko eta etxetik kanpoko erabilerarekiko.*

*Beren burua katalantzat soilik sailkatzen ez duten pertsona askok bere egiten dute Katalunia independente batean ia automatikoki onartuko liratekeen zenbait helburu.*

#### **4. ETORKIZUNEN BALANTZEEI BURUZKO DISKURTZOAK: LITERATURA SASIPROFETIKOA ETA ELEBAKARTASUNAREN BAKARTASUNA**

What can be asserted without proof  
can be dismissed without proof  
(Christopher Hitchens)

Hitchensen esaldi horri esker, ez dugu azaldu behar katalanaren etorkizunari buruz idatzi eta esan den gehiena. Diskurtso erresistentzialista eta zorrotzaren esparruan sartu beharko genuke idatziz zein ahoz adierazitako gehiena. Oso interesgarria izan daiteke diskurtso gisa, baina ez dute diziplina prospektiboaren baldintzarik betetzen. Izan ere, diskurtso askok aipatzen dute etorkizuna, baina oso gutxi dituzte aurreikuspenak ondo oinarrituta. Badira hiru ezaugarri, prospektiba eta zientzia-fikzioa edo igarpena bereizten dituztenak: sinesgarritasuna (eragileen jokabideak bat etorri behar du ustez dituzten interesekin), arrazionaltasuna (eragileek, beren iriztiak oinarritzeko, izan ditzaketen informazioak erabili behar dituzte) eta, azkenik, koherentzia (alde batera utzi behar dira barne-kontraesanak)<sup>11</sup>.

Hainbat izen eman zaie hizkuntzaren etorkizunari buruz hamarkadan behin-edo erupzioa izaten duten fumarolei: pentsamendu apokaliptikoa, diskurtso eskatologikoa, etab. Guk, ordea, literatura sasiprofetikoa izena dugu gustuko. Alabaina, gure ustez, literatura profetikoa aztertzeke, denbora-ikuspegi hirukoitza behar da: iragana - oraina - geroa. Beste denbora-eremu bat —iragana— gehituz, askoz zailagoa da azterketa egitea; izan ere, denbora-ikuspegi horiek triada bat osatzen dute, eta azterketa hirutartzat hartua genuen (Querol, 1993). Kontuan izan behar dugu hiru denbora-ikuspegiak elkarren mendekoak direla, Edgar Morin-ek bikain argudiatu duenez (1981: 319-327).

Ikuspegi profetikoak idazki horien korapiloa askatzen lagunduko digu. Idazki paradoxikoak dira itxuraz; izan ere, katalanari zer gertatuko zaion iragartzen dute, baina ez dute inola ere hori gertatzea nahi. Merton-ek (1949: 505-520) idatzi zuen autogauzatzen den —edo autobetetzen den— profetia oro, hasiera batean, egoeraren definizio “faltsua” dela eta beste jokabide bat eragiten duela, eta horren ondorioz, hasierako ikuskerara faltsua “egiazko” bihurtzen dela. Aitzitik, profetia autofrustratua (edo suizida), behin eginda, hura ez betetzeko kausa da berez. Berba baterako, pertsona-talde batek esan du ez dela helburu bat lortzeko gai izango. Ondoren, profetia horren kontra egitea eta gehiago ahalegintzea erabaki du, eta horrenbestez, helburua lortzen du.

Hortaz, aztertzen ari garen konjuruak profetia autofrustratu bihurtzea dute xede, nahiz eta, egia esan, profetia autofrustratuaren ordezi sasiprofeziak izan.

Halaber, lan honen aztergaiari dagokionez, alegia, katalanak Katalunian irauteari dagokionez, (horri buruzkoak baitira idazki sasiprofetiko

gehienak), esan behar dugu egungo joerek beren horretan jarraituz gero iraute hori bideragarria dela, 3. epigrafean ikusi dugunez<sup>12</sup>. Alabaina, horren inguruko diskurtso zorrotzak augurio txarrak egiten ditu, ez haiek betetzeko asmoz, jakin baitaki ez direla beteko, baizik eta katalanaren iraupena gero eta bideragarriagoa izan dadin. Oharpena da, beraz. Izan ere, ez dute esaten katalana desagertu egingo dela, baizik eta ez dela elebakartasun-egoera lortuko; hots, aspaldiko alferreko pertzepzioari jarraituz betidanik lortu nahi izan den egoera ez dela lortuko<sup>13</sup>.

Bestalde, berriro azpimarratu behar dugu, Thomasen teoreman oinarrituta, egoera baten definizio kolektiboak (profeziak edo iragarpenak) egoeraren beraren zati bihurtzen direla eta horrek, hortaz, eragina duela ondoko garapenean. Aierdik dioen bezala: “errealitatea sortzen dute”<sup>14</sup>.

Katalana desagertu egingo dela ohartarazten duen literatura ez da profetikoa, sasiprofetikoa baizik; izan ere, katalana desagertu egingo dela diotenak hau ari dira esaten: etorkizunean katalanez soilik hitz egingo delako ilusioa (haien ilusioa) bertan behera utzi behar dela derrigorrez, gaur egungo egoerak horrelakorik amestea galarazten dielako. Hortaz, ez da profetia bat, haien gustuko etorkizunaren inguruko aitormena baizik. Gainera, adierazten dute, lotsagabekeriak adierazi ere, katalanak beraien gustuko etorkizuna izango ez duenez, ez duela inolako etorkizunik izango. Beraz, literatura profetikoa barik, literatura bihurriaz hitz egin behar genuke. Alegia, ume bihurriek bezala, partida irabazterik ez dutela ohartzen direnean, bertan behera uzten dute jolasa. Katalanezko etorkizun elebakarraren abstenentzia-sindromearen eraginen ondorioetako bat da. Azkenik, esan beharra dago, oso interesgarria dela histeria hori sorra-razi duten kausen historia, baina ez dugu hemen behar bezala aztertze-ko lekurik. Horren inguruan, hau esango dugu, besterik ez: egoera soziolinguistikoaren bilakaera-aukeren ikuskera manikeoa erein izan da, eta horren ondorio dira aipatutako emaitzak.

## 5. ONDORIOAK

Zorabioa espazioarekiko, egonezina denborarekiko  
(Arthur Schnitzler)

Aldaketa soziolinguistikoak, aurkako egoerak aldatu behar direnean, oso motelak dira, zenbait belaunalditako kontua, eta bereziki aginpide guztiak ez dituzten hiztunen komunitateentzat. Ildo horretan, katalanaren erabilerak aztertzean, ohartu gara zeinen garrantzitsua den gurasoen jaioterria. Hain zuzen, elkarrizketatuena baino garrantzitsuagoa da. Horrek erakusten digu erabilerak ez direla nabarmen aldatzen egungo gertaeren ondorioz, eta gurasoen jatorrietan sustraituta daudela. Bestalde, dirudienek, ez dugu behar bezala balioesten XX. mendean Katalunia-ko biztanleen %60 immigrantea zela; izan ere, orain, zur eta lur gaude gaur egungo immigrazioaren fenomenoarekin. Egia da ohiz kanpokoa

---

*Diskurtso zorrotzak augurio txarrak egiten ditu, ez haiek betetzeko asmoz, jakin baitaki ez direla beteko, baizik eta katalanaren iraupena gero eta bideragarriagoa izan dadin. Oharpena da, beraz. Izan ere, ez dute esaten katalana desagertu egingo dela, baizik eta ez dela elebakartasun-egoera lortuko.*

*Egoera soziolinguistikoaren bilakaera-aukeren ikuskera manikeoa erein izan da, eta horren ondorio dira aipatutako emaitzak.*

---

*Katalanaren erabilerak aztertzean, ohartu gara zeinen garrantzitsua den gurasoen jaioterria. Elkarrizketatuena baino garrantzitsuagoa da.*

*Gogoan izan beharko genuke XX. mendeko immigrazioak ez diola kalte handirik egin katalan hizkuntzaren bideragarritasunari.*

dela, baina ez luke guretzat ezezaguna izan behar, eta gogoan izan beharko genuke XX. mendeko immigrazioak ez diola kalte handirik egin katalan hizkuntzaren bideragarritasunari. Izan ere, zenbaiten negarra entzun genuen azken garai honetako immigrazioa hasi aurretik.

Egia da, 1997an egindako inkestarekin alderatuta, katalanaren erabileren portzentajeek behera egiten dutela esparru guztietan (egiaztatutako esparru bakarrean izan ezik: inkestako galderei erantzuteko erabilitako hizkuntza). Halaber, hau hartu behar da kontuan: lehenik, hizkuntza-gaitasun guztiek hobera egiten dute; bigarrenik, katalanak ohiko hizkuntza gisa duen portzentajea 8,7 puntu handitu da hasierako hizkuntzarekiko; eta azkenik, hasierako hizkuntza gaztelania duten pertsonen %14k katalana transmititzen die seme-alabei. Hiru adierazle horiek argi eta garbi erakusten dute zein den egungo Kataluniako erreferentziazko hizkuntza-taldea, bai eta zer erakarpen-indarra duen ere.

### **5.1. Soziolinguistika prospektiboaren alde**

Etorkizunari begira, aurreko ataletan aztertu ditugun isuriak saiheste aldera, prospektiba erabili beharko dugu. Raymond Boudon-ek adierazten duenaren arabera (1995: 180-181), nahiz eta diziplina hori konplexua izan metodologiaren aldetik, babesgabe jarraitzen dugu oinarritzko hiru galderaren aurrean:

1. Egungo errealtateko zein elementuk jarraituko dute inbariante gisa?
2. Zein joera esanguratsuk jarraituko dute etorkizunean?
3. Zer nobedade sortuko dira bat-batean, eta zer eragin izango dute inbarianteei eta joera esanguratsuei buruzko azterketatik ateratako aieruetan?

Horrenbestez, azterketa-metodologia gisa, etorkizuna aurreratzen du prospektibak, bi hauek alde batera utzita: alde batetik, naturaz gaindiko iragarpenaren sistematizaziorik eza (aipatutako literatura sasiprofetikoa), eta beste batetik, iragarpen teknikoaren gerruntze positibista (estrapolazio hutsekoa eta eredu itxietan oinarritua). Hala, azterketa kuantitatiboak zailtasunak ditu faktore psikologiko edo politiko handien ereduak zehazteko, edo ezin ditu zehaztu. Hori dela-eta, prospektibak triangelatze metodologikoa sustatzen du, eta bai teknika kuantitatiboak bai kualitatiboak erabiltzen. Beraz, mapa moduko bat da, eta ez iparrorratza.

Eskuarki, lau jarrera omen ditugu etorkizunarekiko: ostrukarena (pasibotasuna), su-hiltzailearena (erreaktibotasuna), aseguru-saltzailearena (preaktibotasuna) eta konspiratzailearena (proaktibotasuna). Katalanaren etorkizunari begira, aurreko jarreretako bi hartu izan direla ematen du: alde batetik, proaktiboa, 4. epigrafean aztertu dugun jarrera sasiprofetikoa; eta beste batetik, ostrukarena, Albert Einsteinen gogoeta baten

bidez argi daitekeena: “Ez dut inoiz etorkizunean pentsatzen, hain azkar iristen da-eta!”.

Sasiprofetak aldi batera utzi eta jarrera proaktiboa hartzeak alde on ugari izango luke; izan ere, zenbaiten iritziz, kinka larrian gaude gaur egun: bidegurutze historikoan gaude<sup>15</sup>. Hain zuzen, Václav Havel-ek hau idatzi du: “Bidegurutze historikoan dagoen herrialdeak iritziren bat izan behar du berari buruz, bere aukerei buruz, eta jakin behar du zer izan nahi duen, zer funtzio izan nahi duen, zeren alde egin nahi duen eta zer saihestu nahi duen”.

Gaur egun, gobernuek gai bakoitzari zer garrantzi ematen dioten jakin dezakegu, prospektiba-azterketak egitea agintzen duten ala ez ikusita. Katalan hizkuntza aldarrikatzen den bezain funtsezkoa bada, zer dela-eta prospektibari uko egin eta Bas-ek (1999: 60) aipatzen dituen honako alde onak baztertu?

- Orainari eta iraganari buruzko ezagutza-maila handitzen laguntzen du.
- Etorkizunari buruzko erreferentzia baliagarriak ematen ditu.
- Zer aukera eta arrisku egon daitezkeen jakiteko aukera ematen du.
- Egoera bakoitza gertatzeko zer probabilitate dauden adierazten du.
- Politika eta ekintza alternatiboak zehazten, aztertzen eta balioesten laguntzen du, inpaktuei buruzko azterketen bidez.
- Egokitasun-maila handiarazten du.
- Kudeaketa-kontrol handiagoa eta hobea ahalbidetzen du.

Horrenbestez, gure ustez, prospektibak ez du zertan ia galarazia izaten jarraitu gure hizkuntzaren soziologian. Eta are gutxiago hizkuntza-plangintzaren eta politikaren arloan; izan ere, nola hartu aurrea aurreikusi gabe?

Prospektibak potentzial handia badu ere, oso zaila da diskurtsoak aldatzea. Aierdik (2008:3) adierazten du diskurtso zorrotzak ez dituela gertaerak aztertzen ondorioak ateratzeko; izan ere, haren ustez, printzipioetan oinarrituta errudunak bilatzen ditu. Batzuetan, ez dio ardura ikuspegiak gertaeren kontra egitea. Horren ondorioz, ez dago bermatuta eraiki behar dugun diskurtso zorrotza sinesgarria izango denik, metodo prospektiboak erabili arren, datu sinesgarriak emango dituenik eta arrazoiak onargarriak egingo duenik.

Beraz, Joxanton Artzeren parafrazi batekin amai dezakegu, diskurtso-mota aldatuta, ordea: hizkuntza bat bideragarria da ez dakitenek ikasten dutenean, eta dakitenek erabili eta seme-alabei transmititzen dietelako.■

## 6. BIBLIOGRAFIA-ERREFERENTZIAK

Aierdi, Xabier (2008): “Jungla terminológica y bases para la eficiencia en las políticas sociales. [On line artikulua]. Nafarroako Unibertsitatea.

---

*Hau hartu behar da kontuan: lehenik, hizkuntza-gaitasun guztiak hobera egiten dute; bigarrenik, katalanak ohiko hizkuntza gisa duen portzentajea 8,7 puntu handitu da hasierako hizkuntzarekiko; eta azkenik, hasierako hizkuntza gaztelania duten pertsonen %14k katalana transmititzen die seme-alabei.*

**Eskuarki, lau jarrera  
omen ditugu  
etorkizunarekiko:  
ostrukarena  
(pasibotasuna), su-  
hiltzailearena  
(errektibotasuna),  
aseguru-saltzailearena  
(preaktibotasuna) eta  
konspiratzailearena  
(proaktibotasuna).  
Katalanaren etorkizunari  
begira, aurreko  
jarretako bi hartu izan  
direla ematen du: alde  
batetik, proaktiboa, 4.  
epigrafean aztertu dugun  
jarrera sasiprofetikoa; eta  
beste batetik,  
ostrukarena.  
Sasiprofetak aldi batera  
utzi eta jarrera  
proaktiboa hartzeak alde  
on ugari izango luke.**

- [Kontsulta-data: 2009ko irailaren 1a].<http://www.unavarra.es/migraciones/papers3/comun1JUNGLA%20TERMINOL=GICA.doc>
- Aracil, Lluís V. (1983): "Sobre la situació minoritària", in *Dir la realitat*, Edicions Països Catalans, Bartzelona, 171-206.
- Bas, Enric (1999): *Prospectiva. Cómo usar el pensamiento sobre el futuro*, Editorial Ariel (Social bilduma), Bartzelona.
- Boudon, Raymond (1995): *Diccionario de sociología*, Larousse Planeta, Bartzelona.
- De la Corte, Luís; Blanco, Amalio (2005): "Conflictos intergrupales y prejuicios étnicos", in Del Águila, Rafael (koord): *Immigración: un desafío para España*, Pablo Iglesias Fundazioa, Madril, 305-347.
- Direcció General de Política Lingüística (1997): *Enquesta lingüística sobre l'ús oral del català entre la població de Catalunya major de 15 anys. Informe resum de l'Institut DYM*, Kataluniako Generalitat, Kultura Saila, Bartzelona [argitaragabea].
- Gras, A. (2004): "Methode des scénarios", in Mucchielli, A: *Dictionnaire des méthodes qualitatives en sciences humaines*, Armand Colin, Paris, 235-237.
- Merton, Robert K. (1949): *Social Theory and Social Structure*, Free Press, New York. Gaztelaniazko itzulpena: *Teoría y estructura sociales*. FCE, Mexiko, 1992.
- Morin, Edgar (1981): *Pour sortir du XXè siècle*, Fernand Nathan, Paris.
- Querol, Ernest (2010 a): "Enquesta demogràfica 2007: nova font, noves dades sociolingüístiques" in *Revista de Llengua i Dret*, 53, 243-264. [http://www10.gencat.net/eapc\\_rld/revistes/revista.2010-03-31.8990722470/Enquesta\\_demografica\\_2007\\_nova\\_font\\_noves\\_dades\\_sociolinguiques\\_/ca](http://www10.gencat.net/eapc_rld/revistes/revista.2010-03-31.8990722470/Enquesta_demografica_2007_nova_font_noves_dades_sociolinguiques_/ca)
- (2010 b): "L'ensenyament secundari al País Valencià i a Catalunya: entre les paradoxes de la hipocresia i els mites en contacte" in *Treballs de Sociolingüística Catalana*, 20, 129-191.
- (2010 c): "Per a una sociolingüística prospectiva: de la profecia a la prospectiva", in *Treballs de Sociolingüística Catalana*, 21 [prentsana].
- ; Strubell, Miquel (2009 a): *Llengua i reivindicacions nacionals a Catalunya. Evolució de les habilitats, dels usos i de la transmissió lingüística (1997-2008)*, UOC argitaletxea, Bartzelona.
- (2009 b): "Demolingüística: nova enquesta demogràfica, nous mètodes i noves dades", in *Llengua i ús*, 46, 95-108 <http://www.gencat.cat/llengua/liu/46/>
- (2009 c): "Els discursos sobre els balanços i la balança dels discursos: l'estat del català als Països Catalans" in *Escola Catalana*, 460 (iraila/urria), 4-5.
- (Ed) (2007): *Llengua i societat als territoris de llengua catalana a l'inici del segle XXI: l'Alguer, Andorra, Catalunya, Catalunya Nord, la Franja, Illes Balears i Comunitat Valenciana*, Kataluniako Generalitat, Presidenteordetza Saila,

- Hizkuntza Politikako Idazkaritza, Estudis saila, Bartzelona, 12.
- (2006): *El coneixement del català 2001. Mapa sociolingüística de Catalunya (Anàlisi sociolingüística del cens del 2001)*, Barcelona, Generalitat de Catalunya, Departament de la Vicepresidència, Secretaria de Política lingüística, Publicacions de l'Institut de Sociolingüística Catalana, Sèrie Estudis, 10.
- (1999): *Cap a un nou marc teòric per a l'estudi de les variables dels processos de substitució lingüística*, Bartzelonako Unibertsitateko argitalpenak (mikrofitxatutako doktorego-tesiak, 3568), Bartzelona.
- (1993): "Models en contacte: anàlisi dels estudis sobre les relacions interlingüístiques", in *Actes del IX Col·loqui Internacional de Llengua i Literatura Catalanes*, Alacant/Elx, 87-96.
- Rosset, Clément (1976): *Le réel et son double (Essai sur l'illusion)*, Gallimard, Paris. Gaztelaniazko itzulpena: *Lo real y su doble. Ensayo sobre la ilusión*, Tusquets, Bartzelona, 1993.
- Siguan, Miquel (2009): *El projecte català. Del passat al futur*, Editorial Aresa, Nou punt de vista bilduma, Bartzelona.

**Prospektibak potentzial handia badu ere, oso zaila da diskurtsoak aldatzea.**

**Joxanton Artzeren parafrasi batekin amai dezakegu, diskurtso-mota aldatuta, ordea: hizkuntza bat bideragarria da ez dakitenek ikasten dutenean, eta dakitenek erabili eta seme-alabei transmititzen dietelako.**

## OHARRAK

1. Azken bosturtekoan, Katalunian, erakundeek *soziolinguistika* hitzarekin lotutako oro jazarri dute: Institut de Sociolingüística Catalana itxi zuten (ni neu izan nintzen haren azken zuzendaria, 2002tik 2005era bitartean); Noves SL aldizkaria urtean behin argitaratzen hasi ziren, eta ez hiru hilean behin; eta hitz debekatua kendu zuten Hizkuntza Politikako Idazkaritzaren webgunetik. Llengua i Ús aldizkarian ere (Hizkuntza Politikako Aldizkari Teknikoa, 1994tik lau hilez behin argitaratzen da) aldaketa *komenigarria* gertatu da: "Sociolingüística" atalaren ordez, "Recerca" atala du orain. Eta garbiketa hori guztia gertatu da Idazkaritza soziolinguistek zuzendu duten bitartean... Badira hizkuntzaren soziologiari buruzko beste aldizkari batzuk, katalanez argitaratzen direnak. Urtean behin, *Treballs de Sociolingüística Catalana* (1977tik) eta *Llengua, Societat i Comunicació* (2004tik). 1983. urtetik, sei hilean behin, *Llengua i Dret* argitaratzen da, zuzenbideko gaiak jorratzen dituena. Beraz, ez dugu BAT bezala hiru hilean behin argitaratzen den aldizkaririk.
2. Bigarren mailako hausnarketa edo behaketa kontzeptu konstruktibista da, eta haren helburua behaketei behatzea da. Bigarren mailako behatzaileek behatzaileen behaketei, beren behaketei edo beste behaketei soilik behatzen diete. Lehen bi epigrafe hauetan, aurreko izenburuetan partzialki egin dugun moduan, bibliografiako 2009 c artikulua hartuko dugu aintzat leialki.
3. Aracil-en arabera, botereak gutxiengoetan eragiten duen liluramendua da *kratolatria*. Haren iritziz, obsesio saihezkariaren ohiko kasua da, alde batetik, eta beste batetik, ororen kontrako uste osoa.
4. Banakoek erreferentzia-taldekoak izateko joera dute. Talde horretan sartzea dugu helburu, eta eredugarria da guretzat. Talde horretakoen portaera jokabidetzat hartzen dugu, baita gure asmoaren eta *autoapreziazioaren* neurritzat ere.
5. Gehienek hizkuntza tartekatzeak hainbat ondorio ditu, eta ondoriorik larrienetako bat da gehienek hizkuntza talde minorizatuen erabilerarik pribatuena nagusitzea. Aracilek, bere artikulua apartan (1983), *intrusio* deitu zion azken fase horri.
6. Ildo horretan, esan behar dugu 1. taulan zenbait magnituderi dagozkien zenbakizko balioak jarri ditugula elkarren ondoan. Izan ere, bi zutabetan izan ezik, balioek ehunekoak adierazten badituzte ere. Etxetiko kanpoko erabilerei eta hedabideen kontsumoari dagozkien zutabeak dira salbuespenak. Lehen kasuan, ehuneko bateg bestekoak ematen dira, eta bigarren kasuan, hedabide bakoitza kontsumitzen ematen diren 100 ordutatik katalanezko produktuak kontsumitzen ematen diren orduen bateg bestekoak. Taulak ez du jasotzen zein diren dinamika soziolinguistikoaren adierazle nagusie-



tako bi (izan ere, egungo egoeraren berri eman nahi da taularen bidez: alde batetik, belaunaldien arteko hizkuntza-transmisioa, eta bestetik, ama-hizkuntzaz bestelako hizkuntza bat "bere" egitearen prozesua. Bi adierazle horiek 3.3.1. eta 3.3.2. ataletan ikusiko ditugu, hurrenez hurren, baina Kataluniako datuak soilik aztertuko ditugu.

7. "Etxean" esparrurako, katalana soilik edo batez ere hitz egiteari dagozkion datuak hartu ditugu.

8. "Etxetik kanpo" esparrurako, galdera honen erantzuna jaso dugu: "Zer ehunekotan erabiltzen duzu hizkuntza hauetako bakoitza?". Izan ere, erantzun hori bat dator sei azpiesparruetako bakoitzean emandako erantzunekin, galdera-sorta honetan eskatzen zirenekin.

9. Adierazpen horren balioa anibalentea izan daiteke; izan ere, erantzun berbera modu positiboan zein negatiboan interpreta daiteke. Hala, elkarrizketatuak esaten badu katalana iraganean erabiltzen zela gehiago, zentzu batean zein bestean balora dezakegu. Galdera horren erantzunak gainerako galderetan bezala ordenatu direnez, hau erabaki dugu: norbaitek erantzuten bazuen katalana lehen erabiltzen zela gehiago, interpretatu dugu pertsona horrek gaur egun katalana gehiago erabili beharko litzatekeela adierazi nahi zuela.

10. Azken lan horren ondorioak erabiliko ditugu, oraindik ez baita argitaratu 2008ko EULP (Biztanleriaren Hizkuntza Erabilerei buruzko Inkesta). Labur-labur, hemen kontsulta daitezke datuak: <http://www.idescat.cat/cat/idescat/publicacions/catalog/pdfdocs/eulp2008.pdf>

11. A. Gras-en aburuz (2004: 235), hiru ezaugarri horiek dira aukera anitzeko eredu ebolutiboak eta agertoki egiaztatuak aplikatzeko printzipioak, betiere, jakina, jokoaren arauak errespetatu eta helburuetara egokitzen badira. 2010 c artikuluari jarraitu zaio hitzez hitz.

12. Hau da azpimarratzekoa, beraz: katalana desagertzeko arriskurik ez dagoen lekuetan desagertu egingo dela salatzen dute, eta desagertzeko arrisku handia dagoen lekuetan, berriz, ez dute deus ere esaten...

13. Badirudi *alferreko pertzepzioa* dela ilusioaren amarrurik nabarmenetako bat. Rosset-ek adierazten duenez (1973: 12-13), pertzepzio horrek ez du begiradan akatsik eragiten; izan ere, behatutako gauza lekualdatu eta beste leku batean jartzen du. Inozoaren pertzepzioa bitan zatituta dago: alderdi *teorikoa* (hain zuzen, "ikusten dena") artifizialki bereizten da alderdi *praktikotik* ("egiten dena").

14. Rossetek (1976: 25) dio ironikoa dela arreta errealtazioaren tresna bihurtzea: "saihesteko egindako keinua eta heriotza eragiten duen keinua keinu berbera dira, Heraklitoren bide misterioetsua bezalakoak; bide hori aldi berean igo eta jaisten da. Arreta gogaikarri horri esker betetzen da orakulua, eta patua saihesteko ekintzak berak hura betetzea eragiten du." Hortaz, iragarpena bete egiten da, hura desagerrarazten ahalegintzen den keinuaren beraren ondorioz.

15. Miquel Siguánen eranskin dokumentalean (2009: 242, 254) jasotako iritziez ari gara. Salvador Ginerren aburuz, bidegurutze historikoan gaude, arrazoi honengatik, besteak beste: "Kataluniak asko izango du jokoan datozen hamabost urteetan, egungo belaunaldiak ez baitu ideal sendorik, gizalegezko kulturarik eta abertzaletasunik". Heribert Barrerak hau esaten du: "Hemendik hamar urtera ez bagara irteten, ez gara aterako".